

ORDU-KREDITUEN SISTEMA EUSKARA IKASTAROETAN

EAEko ADMINISTRAZIO OROKORREKO LANGILEEI ZUZENDUA

SARRI EGINDAKO GALDEREN ERANTZUNAK

Gaiak

- 1.- Ordu-kredituaren definizioa, kalkulatzeko modua, osagaiak...
- 2.- Ordu-kreditua kontsumitzea eta saldoa eguneratzea
- 3.- Ordu-kreditua eskaerak egiterakoan
- 4.- Ordu-kreditua ikastaroan zehar
- 5.- Ordu-kreditua lanorduz kanpoko ikastaroetan
- 6.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan
- 7.- Ordu-kreditua eta hizkuntza-prestakuntzako banakako planak

Eusko Jaurlaritzako langileentzako ordu-kredituen sistema arau honen bidez ezarri da:

AGINDUA, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituena. EHAA, 2004-5-7; 85 zk.a).

ORDU-KREDITUEN SISTEMA EUSKARA IKASTAROETAN

EUSKO JAURLARITZA

1. gaia: ordu-kredituaren definizioa, kalkulatzeko modua, osagaiak...

1- Zer da ordu-kreditua

Ordu-kreditua (OK) Eusko Jaurlaritzako langile bakoitzari lanorduetan finantzatuko zaion hizkuntza-prestakuntzako gehieneko ordu-kopurua da.

2- Nori ezartzen zaio ordu-kredituen sistema?

Administrazio Orokorreko langileen kasuan, hau da, Eusko Jaurlaritzako langileen kasuan, ordu-kreditua lanorduen barruan hizkuntza-prestakuntza jasotzen duten langileei ezartzen zaie.

Lanorduz kanpoko ikastaroak egiten dituzten Administrazio Orokorreko langileek ez dute ordu-krediturik izango ikastaroak lanorduen barruan egiten hasi arte.

3- Noiz ezartzen da ordu-kreditua?

Ordu-kredituen sistema 2004-05 ikasturtean hasi zen aplikatzen. Beraz, ikasturte horretatik hasita, Administrazio Orokorreko langile bakoitzari bere ordu-kreditua finkatzen zaio lanorduetan egiten duen lehen ikastaroan.

2004-05 ikasturtea baino lehen egindako ikastaroak ez dira zenbatzen ordu-kredituaren sisteman.

4.- Zeintzuk dira ordu-kredituen sistemaren helburuak?

Honako hauek:

- Bitartekoen eta helburuen artean arazoizko proportzioa ezartzea, lanorduetako hizkuntza-prestakuntzari eskainitako gastuak muga egoki eta nahikoak izan ditzan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko.
- Langileek hizkuntza-eskakizunak modu progresiboan, prestakuntza jaso ahala, gainditu ditzaten bultzatzea.
- Lanorduen barruan ikastaroetara joateko liberazio ordainduei mugak ipintzea, espero beharreko aprobetxamendu akademiko minimoa erakusten ez duten ikasleen ikasprozesuak gehiegi luzatu ez daitezen euskara-maila hobetu gabe edota hizkuntza-eskakizuna gainditu gabe.

5- Nola kalkulatzen da langile baten ordu-kreditua?

Ordu-kreditua kalkulatzeko, langilearen hasiera-maila eta egiaztatu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizuna hartzen dira kontuan, hau da:

- 1- **Langilearen hasiera-maila:** ordu-kredituen sistema indarrean jarri denetik aurrera, hau da 2004-05 ikasturtetik aurrera, langilea lanorduetan eskolatzen den lehen ikasturtean hasten duen maila (urratsa) izango da.
- 2- **Langileak egiaztatu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizuna** langileak egiaztatu duen azken hizkuntza-eskakizunaren ondorengoa da. Oraindik bat ere ez badu egiaztatu, 1. hizkuntza-eskakizuna da. Ez nahastu langileak lanpostuan ezarrita daukan hizkuntza-eskakizunarekin.

Bi aldagai horiek gurutzatuta, ordu-kredituak jasotzen dituen ondorengo taula hau osatzen da:

IKASTARO-MOTA	HASIERA-MAILA	1HE	2HE	3HE	4HE
EUSKALDUNTZEA	101	1.210	1.770	2.430	2.730
	102	1.030	1.600	2.210	2.510
	103	890	1.330	2.020	2.320
	104	770	1.150	1.810	2.110
	105	550	930	1.530	1.830
	106	490	760	1.210	1.510
	107	380	610	1.190	1.490
	108	320	490	880	1.180
	109	210	420	730	1.030
	110	160	370	590	890
	111	110	210	470	770
	112	60	160	340	640
ALFABETATZEA	201	320	350	500	800
	202		320	370	670
4HE	401				300

6- Langilearen hasiera-maila aldatu daiteke?

Ez. Ordu-kredituari begira hasiera-maila ez da aldatzen, hau da, behin ordu-kreditua finkatu denean, hasiera-maila ere finkoa da nahiz eta ondorengo ikasturteetan langilearen euskara maila ordu-kreditua ezarri zitzaionean zeukana baino altuagoa edo baxuagoa izan. Beraz, hasiera-maila bat eta bakarra da langileak ikasprozesuan zehar egiaztatu nahi dituen HE guztietarako. Bestela esanda, behin langilearen hasiera-maila finkatuta, aurreko taulan hasiera-maila horri dagokion lerroan bilatu behar dira HE bakoitzerako langile horrek izango dituen ordu-kredituak.

7- Langilea beste lanpostu batera joaten bada eta lanpostu horretako hizkuntza-eskakizuna desberdina bada, berriro kalkulatu behar zaio ordu-kreditua?

Ez. Ordu-kredituak ez du zerikusirik lanpostuaren hizkuntza-eskakizunarekin. Ordu-kredituaren xedea, beti ere, langileak gainditu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizuna da. Langilea lanpostuz aldatu arren, gainditu behar duen “hurrengo hizkuntza-eskakizuna” eta “hasiera-maila” ez dira aldatzen; beraz, bere ordu-kreditua ere ez da aldatzen.

2. gaia: ordu-kreditua kontsumitzea eta ordu-kredituaren saldoa eguneratzea

8- Nola gastatzen da ordu-kreditua?

Ordu-kreditua ikasleari emandako orduekin gastatzen da.

Garrantzitsua da ohartzea emandako orduak zenbatzen direla eta ez ikasleak hartutako orduak. Izan ere, ordu-kredituak ez dauka zerikusirik ikasleak izandako asistentziarekin; adibidez, hilabete batean 40 eskola-ordu eman badira taldean, taldeko guztiei 40 ordu kenduko zaie ordu-kreditutik, berdin % 100ekoa asistentzia izan duenari zein % 80koa izan duenari.

9- Noiz eguneratzen da ordu-kredituaren saldoa?

Ordu-kredituaren saldoa hilez hil eguneratzen da. Zenbaketa ikaslearen taldearen lehenengo klase egunetik ikasturtea amaitu arte egingo da, edo, kasuan kasu, ikaslea ikastaroan behin betiko baja den momentura arte.

10- Zer gertatzen da ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu?

Ikastaroan hasi eta gero ikasleak eskola behin betiko uzten badu, gelditu egiten zaio orduen kontaketa.

Baina, orduen kontaketa gelditu dadin, ezinbestekoa da ikaslearen erakundeak eskola uztearen berri IVAPi ematea; hau da, erakundeak ez badio IVAPi eskola uztea jakinarazten ikaslearen ordu kredituak agortzen jarraituko du ikastaroan eman diren orduekin.

Eskola uztearen berri emateko, inprimaki hau erabili daiteke: “ Eskola uztea jakinarazteko inprimakia” , IVAPen web orritik eskuratuta (euskara>euskara ikastaroak>inprimakiak)

11- Langileak hurrengo HE gainditzen duenean, zein da ordu-kredituaren saldo berria?

Langile bati geratzen zaion saldoa kalkulatzeko, nahikoa da kenketa hau egitea: momentu bakoitzean dagokion ordu-kreditua ken hasiera mailatik lanorduetan emandako eskola-orduak.

$$\text{Saldoa} = (\text{ordu-kreditua}) - (\text{lanorduetan emandako orduak})$$

Adibidez, hona hemen langile baten 3HE lortu arteko ikasprozesu posible bat. Ikusi nola eboluzionatzen duen bere saldoak ikasturtearen hasieran eta bukaeran:

Ikasturtea	Hasiera-maila (urratsa)(1)	Hurrengo HE	OK	OK saldoa ikasturtearen hasieran	Ikasturtean emandako orduak (2)	Emandako orduak metatuta	OK saldoa ikasturtearen amaieran	HE azterketaren emaitza ekaineko azterketa aldian
2004-05	104	1HE	770	770	300 (2 orduko ikastaroa)	300	470 (=770-300)	
2005-06	104	1HE	770	470 (=770-300)	300 (2 orduko ikastaroa)	600	170 (=770-600)	GAI
2006-07	104	2HE	1.150	550 (=1.150-600)	300 (2 orduko ikastaroa)	900	250 (=1.150-900)	
2007-08	104	2HE	1.150	250 (=1.150-900)	300 (2 orduko ikastaroa)	1.200	-50 (=1.150-1.200)	GAI
2008-09 (urri-otsaila)	104	3HE	1.810	610 (=1.810-1.200)	440 (5 orduko ikastaroa)	1.640	170 (=1.810-1.640)	
2008-09 (otsail-ekaina)	104	3HE	1.810	170 (=1.810-1.640)	440 (5 orduko ikastaroa)	2.080	-270 (=1.810-2.080)	GAI

(1) Ordu-kredituaren ondorioetarako hasiera-maila ez da aldatzen.

(2) Hemen adierazten diren ordu-kopuruak erreferentziarako baino ez dira; kasuan kasuan aldatu egin daitezke.

3. gaia: ordu-kreditua eskaerak egiterakoan

12- Langile batek egin al dezake lanorduetako eskaerarik bere saldoa ikastaroaren iraupena baino murriztagoa denean? (adibidez, aurreko ikasturtearen amaieran +25 orduko saldoa geratu zaion langile batek)

Bai. Nahiz eta ordu-kreditua agortzeaz egon langileak badauka lanorduen barruko eskaera egiterik. Ikastaroak aurrera egin ahala saldoa agortu egingo zaio, baina, horrela izanda ere, eskoletan jarraitu eta ikastaroa amaitu ahal izango du.

Dena dela, saldoa agortzen zaionetik ikastaroa bukatu bitartean ikasleari emandako orduak zenbatu eta, hala badagokio, kendu egingo zaizkio hurrengo hizkuntza-eskakizunari dagokion ordu-kreditutik (ikus 16. galdera).

13- Ordu-kreditua agortuta daukan langile batek egin dezake hurrengo ikasturterako lanorduetako eskaerarik?

Eskaera egin bai, baina ekaineko hizkuntza-eskakizunetako azterketen emaitzen zain geratuko da. Hau da, ordu-kreditua agortuta duten langileen eskaerak sail bakoitzean baimendu edo ukatuko dira beste eskaera guztiekin batera, baina baimena lortzen dutenak hizkuntza-eskakizunen azterketen emaitzen baldintzapean geratuko dira. Ekaineko azterketen emaitzak argitaratzen direnean, IVAPek ordu-kredituaren kontrola egingo du eta saldo negatiboan jarraitzen duten lanorduetarako eskaera guztiak bertan behera utziko ditu.

Horrela gertatzen bada, langileak ezingo du hurrengo ikasturtean ikasturorik egin lanorduetan. Nahi badu, lanorduz kanpo egiteko aukera izango du, baina horretarako betiere eskaera epe barruan eginda eduki behar du. **Horregatik, ordu-kreditua agortuta duen langile batek lanorduetako ikastaroa ezin duelako egin azkenean lanorduz kanpoko egingo badu, beharrezkoa du eskaera biak, lanorduetakoa eta lanorduz kanpoko, IVAPen deialdi ofizialetan ezarritako epeen eta moduen arabera gitea.**

Aldiz, ekaineko azterketan langileak hizkuntza-eskakizuna gainditzen badu, hurrengo HErako ordu-kreditua irekiko zaio eta lanorduetako ikastaroa egin ahal izango du, jakina, betiere saldo berria positiboa baldin bada (ohartu behar da litekeena dela, kasu batzuetan, langilearen saldo negatiboa oso handia izatea eta, ondorioz, litekeena dela emandako orduen metatua handiagoa izatea hurrengo hizkuntza-eskakizunerako ordu-kreditua baino. Horrelakoetan, bada, ordu-kreditu berria ireki arren langilearen saldoak negatiboa izaten jarraituko luke).

Langileak lanorduetako eskaeraz gain lanorduz kanpoko ere eginda badauka IVAP-k ofizioz bertan behera utziko du lanorduz kanpoko, sailak espresuki besterik adierazten ez badu behintzat

14- Ordu-kredituen sisteman, langileak saldo positiboa duen bitartean, sailak behartuta al daude lanorduetako eskolentarako baimena ematera?

Ez daude behartuta. Lanorduetako ikasturterako baimenak ematea dela eta, Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana hartu behar da kontuan. Zehazki, 6.1.2.1 atalean, lan-orduetan hizkuntza-prestakuntzarako baimenak emateko irizpideak finkatzen dira:

¹ 15/2004 EBAZPENA, abuztuaren 2koa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko 2003-2007 aldirako Plana onartzen duen Jaurilaritzaren Kontseiluko akordioa argitaratzeko dena. (EHAA, 2004-09-8; zk. 172)

- 1) lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren derrigortasuna.
- 2) Langilea eta Administrazioa lotzen dituen harreman-mota.
- 3) Administrazio atalaren tipologia.
- 4) Lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.

Lau irizpide hauen konbinazio posibleak Funtzio Publikoaren Sailburuordeak ordenatu ditu 2004ko maiatzaren 27ko zirkularrean (INSTRUKZIOA, FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILBURUORDETZARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA BERTAKO ERAKUNE AUTONOMOETAN DIHARDUTEN LANGILEAK LAN-ORDUTEGIAREN BARRUAN HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZAKO IKASTAROETARA JOATEKO BAIMENAK ZEIN IRIZPIDEREN ARABERA EMANGO DIREN ZEHAZTEN DITUENA.)

Aurrekoaz gain, Erabilera Planaren 6.1.2.3 atalak, “lan-orduetako hizkuntza-prestakuntza emateko kontuan izan beharreko bestelako faktoreak” ere jasotzen ditu. Zehazki, bi faktore hauek aipatzen dira, batetik, lanorduetan eskolatu beharreko langile guztiek norik bere prestakuntza-plana izatea ezartzen da, bakoitzaren prestakuntza-beharrizanei ondoen datozkien moduluak aukeratzeko eta, ahal den neurrian behintzat, etenik gabeko prestakuntza izan dezaten; bestetik, egindako ikastaroari ateratako etekina ere kontuan izatea ezartzen da eskatzaileei baimena eman aurretik.

Hori horrela, sailak ez daude behartuta lanorduetako eskaera baimentzera nahiz eta langilearen ordu-kredituaren saldoa positiboa izan.

Halere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 8. artikulua ezartzen duen arabera (398/2005 Dekretua, azaroaren 29koa), banan banako prestakuntza-planaren arabera hizkuntza ikastea bermatuta izango du langileak, lekualdaketatik edota beste edozein arrazoiengatik bere lanpostuko ezaugarriak aldatzen badira ere.

4. gaia: ordu-kreditua ikastaroan zehar

15- Lanorduetako ikastaroa hasteko saldoak positiboa izan behar du nahitaez?

Bai, lanorduetako ikastaroari hasiera eman ahal izateko beharrezkoa da saldoa positiboa izatea.

16- Zer gertatzen da ordu-kreditua ikastaroan zehar amaitzen bada?

Ikasleak eskolan jarraitu ahal izango du eta ikastaroa amaitu ahal izango du. Dena dela, saldoa agortu ondoren ikastaroa bukatu bitartean emandako orduak zenbatu eta kendu egingo zaizkio hurrengo hizkuntza-eskakizunari dagokion ordu-kreditutik (horixe da, hain zuzen ere, 11. galderako adibidean 2007-2008 ikasturtean gertatzen dena). Langileak ikastaroa amaitu baina ez badu hurrengo hizkuntza eskakizuna gainditu, lanorduz kanpoko ikastaroak egin ahal izango ditu, betiere IVAPek ezarritako modu eta epeen arabera.

5. gaia: ordu-kreditua lanorduz kanpoko ikastaroetan

17- Langilea lanorduz kanpoko ikastaroa egiten ari baldin bada bere ordu-kreditua agortuta izateagatik eta hurrengo hizkuntza-eskakizuna egiaztatu badu, noiz hasi daiteke ikastaroan ?

IVAPek ordaindutako lanorduen barruko ikastaroetan hasia, betiere deialdi ofizial baten kontestuan egin beharko da; beraz, bete egin beharko dira deialdietan ezarritako epeak eta gainerako baldintza guztiak. Hori horrela, hizkuntza-eskakizuna gainditzeak ez du derrigorrez esan nahi langilea berehala hasi daitekeenik IVAPen ikastaroetan lanorduetan.

Adibidez, jo dezagun langile bat urritik ekainera bitarteko lanorduz kanpoko ikastaroa egiten ari dela eta urtarrileko azterketa-deialdian hurrengo hizkuntza-eskakizuna gainditzen duela. Kasu honetan, ikasleak lanorduz kanpoko ikastaroa bukatu behar du lehenik eta hurrengo ikasturterako lanorduetako eskaera egin behako du ikastaro berria urrian hasi ahal izateko.

18- Lanorduz kanpoko ikastaroetan kontsumitzen da ordu-kreditua?

Administrazio Orokorreko langileei dagokienez, ordu-kreditua lanorduetan egiten diren ikastaroei dagokie bakarrik. Beraz, lanorduz kanpoko ikastaroei ez dute ordu-krediturik kontsumitzen.

19- Zein da hasiera-maila lanorduz kanpoko ikastaroan dabilen ikasle baten kasuan?

Lanorduetako ikastaroan hasi arte langileari ez zaio ordu-krediturako hasiera-mailarik izendatzen. Kontuan izan behar da ordu-kredituen sistema 2004-05 ikasturtean hasi dela aplikatzen; ondorioz, ikasturte horretatik aurrera hainbat egoera desberdin eman daitezke. Hona hemen ohikoenak:

- a) Langilea ez da lanorduetako ikastaroetan ibili: kasu honetan oraindik langileak ez du hasiera-mailarik izendatuta, eta ondorioz, ordu-krediturik ere ez du ezarrita.

Grafikoki, honela ikusi daiteke:

Ikasturtea	LO edo LOK	Hasiera-maila	HE	OK	Konts	Saldoa
2004-05	LOK	ezarri gabe	1	--	--	--
2005-06	LOK	ezarri gabe	1	--	--	--
L 2006-07	LOK	ezarri gabe	1	--	--	--

LO edo LOK= lanorduetan edo lanorduz kanpo
HE= egiaztatu beharreko hurrengo HE
OK= ordu-kreditua

Konts.= ikasturtean kontsumitutako orduak
Saldoa= ordu-kredituaren saldoa ikasturtearen amaieran

- b) Langileak ikasturte bat egin zuen lanorduetan baina geroztik lanorduz kanpoko ikastaroak egin ditu: kasu honetan, hasiera-maila lanorduetako ikastaroan ezarri zitzaion eta ordu-kreditua ere momentu hartan ezarri zitzaion. Ondorengo ikasturteren batean lanorduetako ikastarora itzultzen bada, orduan ezarritako OK eta saldoa izango ditu indarrean.

Grafikoki:

Ikasturtea	LO edo LOK	Hasiera-maila (*)	HE	OK	Konts	Saldoa
2004-05	LO	102	1	1.030	300	730
2005-06	LOK	102	1	1.030	--	730
2006-07	LOK	102	1	1.030	--	730
2007-08	LO	102	1	1.030	300	430

*) Maila hau ez da ikasleak ikasturte bakoitzaren hasieran duena. Ordu-kredituaren ondorioei begira hasiera-maila ez da aldatzen (ikus 5. eta 6. galderak)

- c) Langilea lanorduz kanpoko ikastaroetan ibili da baina gero lanorduetakoan hasi da: kasu honetan ere, lanorduetan hasitako maila da bere hasiera-maila, eta ordu-kreditua horren arabera ezarriko zaio. Hortik aurrera, lanorduetan jarraitzen badu OK kontsumitzen jarraituko du, baina lanorduz kanpoko ikastaroak egiten baditu, ez.

Grafikoki:

Ikasturtea	LO edo LOK	Hasiera-maila(*)	HE	OK	Konts	Saldoa
2004-05	LOK	ezarri gabe	1	--	--	--
2005-06	LO	103	1	890	300	590
2006-07	LO	103	1	890	300	290
2007-08	LOK	103	1	890	--	290

*) Maila hau ez da ikasleak ikasturte bakoitzaren hasieran duena. Ordu-kredituaren ondorioei begira hasiera-maila ez da aldatzen (ikus 5. eta 6. galderak)

6. gaia: ordu-kreditua udako ikastaroetan

20- Udako ikastaroen kasuan, nola zenbatuko da ordu-kreditua?

Udako ikastaroak arau orokorraren arabera zenbatuko dira, hau da, lanorduetako udako ikastaroetan emandako eskola-orduak ere ordu-kreditua kontsumitzen dute. Lanorduz kanpoko ikastaroetan emandako orduak, aldiz, ez.